

Euskal Herriko Ikasbidearen oinarriak eta aldaketak

(Changes and founds on the Education system at the
Basque Country)

Oregi, Sabin
CEM - GRESIC
MSHA
Esplanade des Autilles
F-33405 Talence
soregi@info.msha.u-bordeaux.fr

BIBLID [1137-859X (2001), 7; 211-224]

Saio honetan, egileak ikustaldi historikoa ematen du. Ikustaldi honen bitartez Euskal Herriak bizi izan duen eskolaratzean gehiago murgildu nahi duenari aztarnak azaltzen dizkio. Aztarna horietan gure historiaren azken berrehun urte hauetan eskolaren giroan eman diren aldaketak nondik nora eman diren aipatzen dizkigu. Aldaketa horien artean euskaldun herritarrek nola galdu zuten kulturarekiko atxikipena, eta egun eskuratze bidean ematen ari diren urratsen emaitza azaltzen du ere.

Giltz-Hitzak: Eskola. Historia. Soziolinguistika. Hizkuntza galera. Hizkuntza kateak. Hizkuntza transmisioa.

El autor trata de proporcionar una visión histórica de la modificación del sistema educativo con la implantación de las leyes obligatorias de enseñanza. La aculturación de numerosos ciudadanos por esas leyes se ve reflejada en unos gráficos; así mismo muestra parte del lento proceso de recuperación que llevan los actuales pobladores de Euskal Herria.

Palabras Clave: Escuela. Historia. Sociolingüística. Pérdida lingüística. Transmisión lingüística. Sistema cultural-educativo.

L'auteur veut rendre une vision historique de la modification vécu lors du système de transmission des valeurs chez les citoyens basques. Cette essai approche son regard aux changements issues depuis l'application des lois dites d'enseignement. Aborde tant l'acculturation produite dans le passé que l'effort actuel de ses citoyens pour récupérer leur patrimoine linguistico-culturelle.

Mots Clés: École. Histoire. Sociolinguistique. Perte-linguistique. Transmission linguistique. Système éducative-culturelle.

Joan berria den gizaldian, hain zuzen azken hamarkadetan, gizartean egiturak izugarri aldatu dira. Hainbestearino aldatu dira gauzak, bikotearen bizi-modua aldarazi arte. Aldaketaren atzean diruaren arazoak, besteen artean, daude; saio honetan aipatuko ez ditugunak. Aldaketa, beraz, bikoteak bizitzeko behar duen diru beharra asetzeko ematen da.

Baina zer gertatzen da bikotearen barruan maitasunaren erantzunez umeak datozenean?

Gure gurasoen garaian bikoteko emea, ama bilakaturik, etxean lanak egiten geratzen zen. Hots, umea –edo umeak– zaindu, bazkaria egin, erropa garbitu, etxea prestatu... eta jolastu. Jolastu ume(a)rekin! Horrela jolasaren bitartez amari bere aurrekoak –ama, amonak,...– erakutsi zizkioten gauzak pixkanaka irakasten joan. Irakasten baino erakusten. Erabileraren bitartez, jolasean murgilduz, eta modu ez formal batetan, umeari erakutsi dizkiote hainbat eta hainbat gauza.

Baina, gauzak aldatu dira. Gaur egun ikasketa hori bera ez da modu naturalean egiten –etxean–, modu kulturealean –eskolan– baino. Horretaz gogoratu behar dugu ere José María Sánchez Carrión «Txepetx» ikerlariak hizkuntza ikasketaz dioena¹. Horregatik, ezin dugu esan gurasoen *tentelkeria* dela egoera horren erantzulea. Gizartea da aldatu dena. Eta faktore aunitz dira egoera horren sortzaileak. Gizarteko mugimenduak gera ezinak dira, itsasoko olatuak ere gelditi ezinak diren modura. Molde aldaketa horiek guraso biak lanera daramate, eta ezin seme-alabak hezi lehengo moduetan etxearen barruan. Orain, bikote horren seme-alaben hezitzaileak eskolako profesionalek dira. Behintzat horrela da Moyano-k (1857) eta Ferry-k (1882) eskolaraztea derrigortzen duten legeak atera zirenetik: umeak eskolan hezten dira.

Gizartearen aldaketan parte hartzen duten faktoreak –industria etengabea sorreratik moldatzea, jendea hiritartzea...– bera osatzen duten giza-talde bakoitzaren kultur balioen transmisioa kinka larrian jarri dute.

Txosten honen xedea ez da Gizarte honen aldaera geraraztea; ezagutzea zer eta jakitea nola gertatzen diren baino. Azkenik, eskola –hezkuntza sistema– nola egokitu daitekeen, *transferitzailea* nola bihurtu daitekeen...

Jorratu gura dugun bidea azaldu ondoren, jardunaldiotan giltzarriak diren bi azalpenak ekarriko ditugu ondoren: folklorea eta hezkuntza. Horretarako gure inguruko hizkuntzetako hiztegiek nola azaltzen duten ikusiko dugu.

FOLKLOREA

– (ing.ezko hitza) iz. **1.** Herri edo eskualde bateko ohitura, herri literatura, sinismenen, kondaira, musika, etab.ek osatutako multzoa. **2.** Delako

1. Ikerlari honek lan ugarietan aztertu du gai hau. Bereziki bi hauetan: *El espacio bilingüe*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1981; eta *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del Euskara y Teoría social de las lenguas*. Egilearen argitalpena. Donostia, 1987. Bigarren argitalpena Aranzadi taldeko “Seminario Julio Urquijo”rena da.

multzoa aztertzen duen zientzia. (*Euskal hiztegi modernoa*. Elhuyar-Elkar, 1994).

- (Del ingl. *folk-lore*: de *folk*, gente, pueblo, y *lore*, enseñanza, conocimiento.) m. Conjunto de creencias, costumbres, artesanías, etc., tradicionales de un pueblo. • *Antrop. cultural*. Ciencia que estudia estas materias. • *Antrop. cultural*. El término *folklore* fue empleado por primera vez por el arqueólogo William J. Thomas (1846), con el que quiso titular el estudio de las tradiciones, leyendas y supersticiones populares. Este estudio, que aspira a ciencia, tiene por objeto acopiar e investigar los conocimientos del pueblo en las diversas ramas de la ciencia, de la literatura, usos y costumbres, ritos y creencias, espectáculos y fiestas, juegos y técnicas, locuciones, etc. La antropología social suele emplear, en vez de *folklore*, el vocablo creado por el estadounidense W.G. Summer (1906) *folkways*, de significación mas estricta. (*Enciclopedia Salvat*, 1997).
- *n.m.* (1877; angl. *folk-lore* (1846) «science (lore) du peuple (folk)»). Science des traditions, des usages et de l'art populaires d'un pays. • *Par ext.* Ensemble de ces traditions. *Chants, légendes populaires du folklore national, provincial*. • Aspect pittoresque mais sans importance ou sans signification profonde. *Le folklore des prix littéraires*. –Loc. fam. *C'est du folklore, c'est n'est pas sérieux*. (*Petit Robert*, 1988).

HEZKUNTZA

- *iz.* Gizakia, bere ahalmenak garatuz eta gizakia erakutsiz, gizartean bizitzeko prestatzea eta gaitzea; horretarako erabiltzen diren bide edo sistemen multzoa. (*Euskal hiztegi modernoa*. Elhuyar-Elkar, 1994).
- *iz.* Gizakia, bere ahalmenak garatuz eta gizakia erakutsiz, gizartean bizitzeko prestatzea eta gaitzea; horretarako erabiltzen diren bideak edo sistemak. • **hezkuntza berezi**. Minusbaliatu psikiko eta fisikoak hezitzeko bidea. √ **hezkuntza iraunkor**. Bizitza osoan zehar egiten dena, bereziki helduen lanorduz kanpoko. √ **Oinarrizko Hezkuntza Orokorra**. Estatu espainolean, 1991eko Erreforma aurreko hezkuntza-sisteman, sei eta hamalau urte bitarteko haurren derrigorrezko hezkuntza maila. Delako Erreformaren ondoren derrigorrezko hezkuntza bi alditan banatu da: *Lehen Mailako Hezkuntza*, sei eta hamaika urte bitarteko haurrei zuzendua eta *Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza*, hamabi eta hamabost urte bitarteko neska-mutilena. (*Hiztegi entziklopedikoa*. Elhuyar, 1993)
- (del lat. *educatio*, *-tionis*) f. Acción y efecto de educar. • Proceso para transmitir el bagage cultural de una comunidad o grupo social a fin de perpetuar su propia existencia y su continuo desarrollo • Conjunto de reglas, costumbres y modelos que rigen la sociedad. • Cortesía, urbanidad, buenos modelos. (*Enciclopedia Salvat*, 1997).

– *n.f.* (xv^e ; lat. *educatio*). • 1^o Mise en oeuvre des moyens propres à assurer la formation et le développement d'un être humain; ces moyens eux mêmes. V. **Pédagogie**. «*On façonne les plantes par la culture, et les hommes par l'éducation*» (ROUSS.). «*Aucune éducation ne transforme un être: elle l'éveille*» (BARRÈS). Recevoir une bonne éducation. Devoir d'éducation (des parents envers les enfants). Maison d'éducation. V. **Institution**. Ministère de l'Éducation nationale, autrefois ministère de l'Instruction publique. • (Avec un déterminatif) V. **Formation, initiation**. Éducation professionnelle, fournissant aux jeunes gens la connaissance d'un métier, d'une technique. V. **Apprentissage**. Éducation permanente (1958), formation continue destinée à maintenir ou accroître les connaissances professionnelles (V. **Recyclage**), intellectuelles ou culturelles aux divers niveaux. Éducation physique, ensemble des exercices physiques, des sports propres à favoriser le développement harmonieux du corps. V. **Gymnastique, sport**. Éducation sexuelle. Éducation politique, civique. «*Le spectacle est la seule forme d'éducation morale ou artistique d'une nation*» (GIRADOUX). Fig. «*Il manque à ces malheureuses victimes une honteuse éducation, je veux dire la connaissance des vices d'un homme*» (BAUDEL.). Éducation surveillé (dr. pén). • 2^o Développement méthodique (d'une faculté, d'un organe). V. **Exercice**. Éducation des réflexes, des sens, de la mémoire. «*L'éducation de la volonté*», ouvrage de Payot. • 3^o Connaissance et pratique des usages de la société. V. **Politesse, savoir-vivre**. Avoir de l'éducation. Il manque d'éducation. «*Cette chose qu'on est convenu d'appeler éducation, cette espèce de vernis*» (LOTI). • ANT. **Grossièreté, impolitesse**. (Petit Robert, 1988).

Beste ezer egin aurretik, azalpenak irakurri ondoren **folklore**a definitzeko hiztegi bakoitzak darabiltzan hitzak zerrendatuko ditugu; geroago berdin egingo dugu hezkuntzarekin.

Euskara	Gaztelera	W.J. Thomas	Frantsez-era
Elhuyar-Elkar, 1994	Salvat, 1997	1846	Petit Robert, 1988
ohitura herri literatura sinismenak kondaira musika	costumbres creencias artesanías	tradiciones leyendas supersticiones populares	traditions art populaires usages
AZTER GAIAK			
	diferentes ramas ciencia literatura usos y costumbres ritos y creencias espectáculos y fiestas juegos y técnicas locuciones		chants légendes populaires

Guk erabili ditugun hiztegiek **folklore**a definitzeko «ohitura» darabilte. Horrela «ohitura» oinarritzen dute: herri literaturan, sinismenetan, artean, musikan... Salvat entziklopediak 1846. urtean William J. Thomas-ek eman-dako azalpena –egungo antropologia kulturalaren oinarri–, eta zientzi honen azter gaiak dakartza.

Goazen, orain, beste lauki batetan, **Hezkuntzaren** azalpena aztertzeraz.

Euskara	Gaztelera	Frantsez-era
Elhuyar-Elkar, 1994	Salvat, 1997	Petit Robert, 1988
ahalmenak garatu gizakia erakutsi gizartean bizitzeko prestatu gizartean bizitzeko gaitu	acción de educar efecto de educar transmisión bagage cultural comunidad conjunto reglas rigen sociedad conjunto costumbres rigen sociedad conjunto modelos rigen sociedad	assurer la formation assurer le développement
BESTELAKO GAIAK		
Hezkuntza iraunkor		Pédagogie Institution Formation, initiation Apprentissage Récyclage Gymnastique, sport Exercice
Hezkuntza berezia	Cortesía, urbanidad, buenos modales	Politesse, savoir-vivre

Hezkuntza azaltzeko hiztegi guztiek darabilten hitz-giltzarriak *erakustea* edo *garatzea* dira; bakoitzean bere aldaerekin. Beraz, **hezkuntza gizakia erakustea –bere ikasketa eta garapenak zaintzea– da**, esan daiteke.

Halere, taulan bada, adieren artean, gure atentzioa piztu duen esaldi bat: *transmisión del bagage cultural de una comunidad*. Hain zuzen, esaldi honek, esku artean ditugun bi adierekin ematea nahi duguna, biltzen du.

IKASBIDEA

Gaur egun gure ingurua behatuz gure aurrekoen ikasketa bidea nolakoa izan zen sumatzea ez da batere erraza. Hala ere gure egunetarinaino iritsi den literaturan jakintzaren transmisioa nola egiten zen suma dezakegu, berdin XIX.eko legeria irakurtzerakoan, edo zaharrekin izaten ditugun mintzaldien bitartez... Esandakoaz gain, hor ditugu, oraindik, Amerikan zein Afrikan dirauten tribuak; eta, hor ditugu zenbait ikerlariek egin behaketen berri. Lan horien arabera, tribu horiek gure tribuetan gertatu zenaren antzekoa bizitzen dute.


Antzina, bikotearen seme-alabak gurasoek eta aitona-amonek hezten zituzten (ikus 1. eta 2. marrazkiak). Haurrak jaiotzen ziren une bertatik fami-

lia –garai haietan tribuak «klan familiarrak» osatzen zuten, gaurko begiekin ikusita klan haiei «makro-familiak» deituko diegu– barnean, bere giroan eta maitasunean, hazten ziren. Giro horretan familia zuten tribuaren kulturaren lehen transmisorea. Tribu haiek nahikoa mugikorrek baziren ere «herria» osatzen zuten. Beraz, familia zen *herri kulturaren* lehen emailea. Haurra izatea uzterakoan, burujabeak tribu horretako umeak hezi egingo dituzte: gizon-burujabeak mutilak, eta emakume-burujabeak neskak. Horrela, jakinduria gazte bakoitzak bere genero izaera aldetik jasoko zuen.

Sumatzen dugun kultura transmisio hau urratsez urrats azalduko dugu.

1. urratsa

Herriko kultura transmisioaren lehen urratsa familia barnean ematen da. Familiaren barnean Ama baita –are gehiago Euskal Herrian non amatasuna da bikotearen bizitzaren ardatza– etxeko lanez gain, haur zein umeen, heziketaz arduratzen dena. Garai haietan, eta orain gutxi arte ere, ama seme-alaben edukazioaz arduratu ohi da. Hori 1. marrazkian azaltzen da. Pixka bat geroago haurtzarotik irteterakoan alabek amari baserri barruan lagunduz eta etxeko lanak eginez baserria gobernatzen ikasiko zuten; aldi berean semeek aitari baserritik kanpoko lanetan lagunduz lan haietan ikasiko zuten. Horrela, *de facto*, sexu genero bereizketa ematen zen garai haietako heziketan. Sexu batekoak ugariak ziren familietan zenbait arazo zeuden. Horrela, emakumezkoak ugari zirenetakoetan etxeko lanez gain landako lanek ere haiek bete behar zituzten, ezkontzaren bitartez gizonik agertu bitartean. Alderantzizkoetan ere beste hainbeste gertatzen zen; etxeko lanetan trebatu behar emakumerik ezkontzaren bitartez etorri bitartean. Ohar modura aipatuko dut nik parte hartu nuen *biolinguistikako*² lan batetan ezagutu nuen Orereta-Erreterriako baserritar bat, hark aipatu zigun nolako une beltzak bizi izan zituzten etxean aita alargundu zenetik lehen anaia ezkondu bitartean.




1. marrazkia. Ikasbidearen 1. urratsa famili barnean.

2. *Biolinguistika*, soziolinguistikaren atal bat da, bertan hizkuntzaren bilakaera historikoa aztertzen da.

Lehenengo marrazkian ikusten den eskema horretan gurasoen arteko harremana erakusten da: ama da haurrei, seme nahiz alabel, herriko kultura-ren lehen urratsak azaltzen jardungo dena.

Garai haietako familia, tamainoz eta antolamenduz, gaurkoarekin alderatuta ezberdina zen: zabalagoa. Ohikoa zen «etxea»ren egitura bi, hiru edo lau generazio elkarrekin bizitzen aurkitzea. Horrela, han bertan bizi ziren: birraitona-birramonak, aitona-amonak, gurasoak –agian ahaide nagusiaren neba-arrebak–, seme-alabak eta neba-arreben umeak ere. Sumatzen denez ume ugari biltzen zen bertan. Baserri barruko zein kanpoko lanetan laguntza ugari behar baitzuten; zer esanik ez uzta-ereintza garaietan. Une larri horietan inguruko beste baserrikoekin elkarrekin lan egitetik sortu zen auzolana. Auzolanetan eskua eman zezakeen edonork lan egin behar zuen, landan zein baserrian.



2. marrazkia. Ikasbidearen 1. urratsa familia osora zabaldua.


Dakigunez umearen gurasoak familiako beste zenbait ahaideekin bizi ziren. Hori horrela izanik umeak beste hartu eman gehiago ditu: aitona-amonarekin, lehengusu-lehengusinekin, izeko-osabekin... Bereziki, familiako adintsuek taldeko umeak zaintzen dituzten bitartean, hauei herrian esaten diren esaundak, eta ipuinak, azalduko dizkie gurasoek beste zereginetan jardun behar duten bitartean. Esaunda, eta ipuin, horien bitartez herriak dituen sinismenak, eta beldurrak, azalduko dizkie haurrei.

Gurasoekin jolasaren bitartez herria eta hizkuntza ezagutzen hasten dira, geroago aitona-amonekin herriko sinismenak eta beldurrak ezagutzen jarraitzen zuten. Baina, hemen ez da umearen hezkuntza amaitzen. Klan ezberdinetako haurrek elkarrekin aritu behar dute, ez bakarrik jolasean aritzeko: herrigintzan ikasteko.

Beraz, gaztetzen ari diren umeak ikastaldiko txanda berri batetan sartzen dira. Bertan mutilak zeregin batzuetarako prestatuko dituzte, neskak beste baterako prestatzen dituzten bitartean.

2. urratsa


Orain artean familia barruan, eta klanaren barruan eraman dute aurrera erakustearen lana. Zaharragoek, borondatez, gazteak prestatu dituzte. Erakuste modu honekin jarraiki, herriko kulturaren transmisio garaia iristen da (ikus 3. marrazkia). Hau nerabe direnean gertatzen da. Oraingoan, «irakasle» lekua taldeko burujabeek hartuko dute



3. marrazkia. Ikasbidearen 1. urratsa gizartera zabalduta

Garai haietan gizartearen eraketa, gaurkoarekin alderatuz, guztiz ezberdina zen. Genero bakoitzeko pertsonak, egoera fisikoaren arabera, lan konkretu batzuetarako prestatzen zituzten. Emakumeak, neska gazteagoen laguntzaz, haur-ume zein zaharren ongi izateaz arduratzen ziren; gizonek talde guztiaren zaintze lanak egingo zituzten bitartean. Horrela, gizonek zaintze lanean, garai zaharrenetan, beste animalientzatik babestu, ehiza egin, eta landareen fruituen bila jarduten zuten; aldi berean, emakumeek besteei erditzen laguntzeaz gain, elikatu, eta jantzi behar zuten. Jada gizarteak eraketa bat dauka. «Eskolatu» behar dira gazteak, tribuaren trebeziak ikasi behar dituzte, horrela, gero helduei laguntzeko. Bitartean, jolasa pixkanaka alde batera utzi behar dute. Halere, jolasa joko bilakatuko da. Jokoa irabazlea eta galtzailea daude. Berriki, Euskal Herriko jokoetan txapela saritzat banatzen hasi zen, eta irabazleari *txapelduna* deitzen zaio; harrezkero jokoak txapelketak dira.

Estatuak osatzen joan diren heinean, beren lurralde barruko jendea modu berdintsu batetan pentsarazteko: arerioak ikusterakoan, etxegintza egiterakoan, mintzairan,... eskola eratu beharrean pentsatzen hasten dira. Eskola horren ereduak burujabeek egiten zuten lana zekusaten agintariak. Horrela, eskolak burujaberen lekua hartzen dute (ikus 4. marrazkia). Hala ere, urte askotan eskolatzea agintarien kontua izan da, eta haiek bakarrik formazioa lortzen zuten. Gauzak aldatzen hasiko dira Maria Cristina erreginaren agintaldian. Bertan, Claudio Moyano *instrukzio publikoko ministroa* zenean, ume guztiak derrigorrezko eskola hartzeko agindua eraiki zuen 1857. urtean. Urte batzuk lehenago jakin badakigu Euskal Herrian zenbait eskola izan zirela³. Eskola gehienak agintari eta zaldunen seme-alabentzat baziren ere, Bizkaian ezagutzen dira zenbait eskola doan, musutruk, jesuitak kudeatu zituztela.



4. marrazkia. Ikasbidearen 2. urratsa.

Eskola berrian, generoen arabera, umeak gela –edo etxe– ezberdinetan bereiztuak agertzen dira. Pentsatzekoa da irakasleen arteko harremanak eman zirela: lan berak sortzen zieten arazoak, erabili beharreko irakurgaitaz, e.a. mintzatzeko. Hala ere, neskei eskaintzen zitzaizkien formazioak ez zuen zer ikusirik mutilek jasotzen zutenarekin. Haiek etxeko lanak eta horrelako kontuak ikasten zituzten bitartean, hauei matematika eta algebra irakasten zitzaizkien.

3 Jada 1816. urtean Jesusen anaidiak Bizkaian 39 eskola zituen. Hala ere 1580.ean, Iruñean, humanitatea, filosofia eta teologia morala irakasteko zuen eskola ezagutzen da. (Maria Angeles Larrea eta Rafael Mieza-ren *Cultura vascas y educación* (s. XVI-XVIII), in "Gran atlas histórico del Mundo vasco", Ed. *El mundo del País Vasco*, Bilbo, 1994, 241-256 orriak.)

Euskal Herrian ikasbide behartua 1857.ean Hegoaldean⁴ abiatu zen; zenbait urte geroago, 1882.ean, Iparraldean⁵. Eztabaida zabala eman bada, guk ez dugu legea maltzurra zela adierazi nahi, bere emaitza horrelakoa izan bada ere. Legeak arretaz aztertuz gero, ezin da baieztatu hizkuntza zentralaz kanpo-koak suntsitzeko helburu zutenik. Haien aplikazioa beste kontu bat da: erabilitzaileek legearen asmoa bortxa zezaketen. Sorreran bi legeek ez baitute inon ere aipatzen bakarrik «estatu»aren hizkuntza landu behar denik. Horrela, behintzat, ulertu baitzuten garai haietan lurralde euskaldunetako Diputazioetako agintariek. Garai hartan sortu baitziren *auzo-eskolak* Gipuzkoa eta Bizkaian, hainbestetan aztertua izan den eskola mota. Lege haien, eta Diputazioen, asmoa: herritar soilari letrak eta numeroak ulertzen eta erabiltzen erakustea zen. Nonbait, sortzen ari zen enpresa era berriaren halabeharrez, langileriak zerbait irakurtzen, idazten eta kontu xumeenak egiten jakin behar zuten.

Legea indarrean jarri zen unetik bere emaitzak eman zituen. Garai haietan bertako irakasleak lortzea zaila zen aitzakiaz baliatuz kanpotik ekarri behar ziren; beraz, haiek ez zuten ezagutzen ez bertako lurra, historia, hizkuntza,... Irakasle haiek beraiek zekitena irakasten zuten. Irakasle haien emaitzak bi txanda ditu; lehenean, etxetik euskaldun peto eta analfabeto eskolaratutako umeak, geroago guztiz arrotza zitzaion hizkuntza batetako hitzetan idazten zituen gutunak euskarazko sintaxian⁶. Bigarren txandan, sustraia galtzen doa eta erreferentzia guztiak kultura arrotz horretan sustraitzen hasten da. Beraz, pertsona mintzairan euskaraz bizi bazen ere, pentsamenduak arrotza duen kulturaren lan-tzen ditu; psikologia ere galtzen du, eta gizarte eraketari dagokionean berea guztiz pitzatua dagoela sinistua dago. Jada, *herriaren kultura* galtzearen lana egina dago. Lege hauek lortu duten emaitza begien bistakoa da: akulturazioa.

Akulturazio hori zenbatekoa izan den, momentuz, Hegoaldean baino ez dugu ezagutzen. Garai zahar horietako Iparraldeari buruzko datu estatistikoak lortzea arraz zaila egiten baita. Moyanoren legea indarrean sartu ondoren estatistikaren biltzaileak probintziaz probintzia ematen dute zenbaki horiek jasotako erroldatan. Hamar urtez behin jasotzen dira oraino ere; baina gerrateak diren garaietan errolda egitea atzeratu egiten zen. Guk eskaintzen ditugun lehen datuak 1877 urtekoak dira; horretarako, Espainiako erroldatan gizartearen alfabetatzeari buruz agertzen direnak bildu ditugu⁷ (ikus 5. marrazkia). *Akulturazioaren* emaitzaren erantzun modura *gara indarraren*


4 Claudio Moyano-ren legea 1857. urtekoa da, 307 artikulua ditu, eta irakasmaila guztiak kudeatzen ditu.

5 Jules Ferry-ren legea 1882. urtekoa da, 18 artikulutan lehen hezkuntza, soilik, kudeatzen du.

6 Guk horren frogaren diren zenbait gutun irakurtzeko parada izan dugu Fermin Leizaolak eratu dituen erakusketetan. Gutun haietan gaztelerazko hitzetan idazten zuten baserriko seme haiek nolako bizimodua zeramaten Euskal Herriko kanpo. Hitzak, bai, gaztelerazkoak ziren; esamoldeak, ordez, euskarazkoak.

7 Informazioa zabaltzeko jo Sabin Oregi *Euskalduntze alfabetatzea Euskal Herrian (1500-1994)*, "Hik hasi", 38. zka. dosierra, 22-23 orriak. Eta Sabin Oregi *Contribution des médias basques à l'extension fonctionnelle de l'euskara: de l'intérêt des socio-types linguistiques. Analyse prospective*. Doktorego tesia, Bordelen 1997 urtean aurkeztua, 48-53 orriak.

garapena dago. Lan honetan, geroago, azaltzen dugu *gara indarra* lortzeko erabiltzen den erakusle baten garapena.



5. marrazkia. Gaztelarazko alfabetatzea Hego Euskal Herrian

Gure azterketan azaltzen ditugun 83 urteetan bi fenomeno nabaritzen dira: bat, lehen urteetan gizon gehiago zegoela eskolatua; eta bi, horrelako denbora txikian euskal herritarren arteko portzentaia handia alfabetatu/akulturatu zela. Informazio hau bera, nik eskaini nuen jardunean, beste bi marrazkietan gauza bera beste modu batetan aztertzen nuen. Marrazki bakoitzean emakumezko zein gizonezkoengan eman zen bilakaera ehunekotan aztertzen zen. Idatzizko lan honetatik kendu egin dugu.


Akulturatze lan horien emaitzak ekiditeko Euskal Herriak zerbait egin behar zuen. Horretarako, lehenik, artean Franco bizi zenean, ikastolak sortu zituen. Hauetan, eskola pribatu legez, irakaskuntza Freire-k azaldutako alfabetatzeko eran jardun zen. Geroago, eta bertako administrazioa estatutu baten bitartez lorturik, eskola munduan hizkuntza ereduak ezarri ziren. Hau neurtzeko bi bide erabil ditzakegu: ohizko eroldarena –1981 urtetik euskara jakitearen galdera dakarrena–, eta eskolan ereduaren ezaugarriak eman duen bilakaera. Bakoitza erabiltzean ondorio ezberdinak ateratzen dira. Gure lan honetan, eman dugun informazioarekin alderatua izateko, eroldaren bidea eskaintzea erabaki dugu.

Orain artean gizartearen hizkuntza (L1) kanpotik ezarri nahi ziren hizkuntzez (L2) ordezkaturik izan da. Oraingoan, alderantziz, L2-a lekua galtzen hasia da –oso modu apalean zenbait lurraldetan bada ere– L1-en alde.

Guk landu dugun azterketa egiteko datuak «Txepetx»ek azaltzen duen teoriaren arabera lantzen saiatu gara⁸. Bertan esaten denez edozein hizkuntzan (L), lehenik jaio berriak entzutearen bitartez, era naturalean, hizkuntza ikasten du; beraz, ezer ez jakitetik ('OO' egoera) naturalki herriaren kultura eta hizkuntza ikasteraino ('AO' egoera) pasatzen da. Oraindik, artean pertsona hori kulturalki jantzia badago ere, letraren mundurako analfabetoa da; alfabetatzearen bidea egitea, 'AB' egoera lortzea, falta zaio. 'AB' egoera lortzeko ikasteari ekin behar dio, eta era kulturalean lortuko du. Lehenik bide naturala (AO) egiten du, gero bide kulturala egiteko (AB).

Edozein hitzun, leku aldaketagatik –edo beste edozein arrazoiengatik– beste hizkuntza bat duen gizarte batetan dagoenean hutsetik ('OO' egoera) ere ikasi behar du hizkuntza berria (L2). Oraingoan, bidea ez da berdina: alderantzizkoa. Lehenik bide kulturala jorratuko du (BO), bide naturala (BA) ondoren betetzeko.

Euskal Herrian hiru hizkuntza dauzkagu *gatazkan*: Hegoaldean bi eta Iparraldean bi. Alde bietako bat euskara da, euskal gizartearen lehenengoa (L1). Beste biak bigarrenak dira (L2), nahiz eta ofizialki beste modu batera kontsideratzen diren. Esandako horren arabera euskal herritar bat identifikatzeko L1/L2 erabiliko dugu. Adibidez OO/OO ikusten dugunean jaioberria ezagutuko dugu, AB/OO euskara bakarrik dakiena; eta OO/AB euskara ez dakien pertsona –BA/AB pertsona horren helburua euskaraz–⁹. Baina, Euskal Autonomi



6. marrazkia. Hizkuntz soziotipoen bilakaera Hego Euskal Herrian.

⁸ Moldaketa hau nola egin jakiteko Cfr. Sabin Oregi, *Contributions... op. cit.*, 238 orria eta hurrengoak.

⁹ Cfr. José María Sánchez Carrión, *Un futuro... op. cit.* 35 orritik aurrera.

Erkidegoko estatistikalariek informazioa soilik euskarari buruz jasotzen dute: horren arabera guk landu dezakegun informazioa 00/??-tik AB/?? edo BA/??-raino doa. Hori gogoan hartuta landu ditugu ondoko informazioak.


Euskarari dagozkion estatistika jasotzeko lanak lehenago EAEn abiatu ziren. Horregatik, datu gehiago ditugu elkarte horretarako. Arabako biztanleria gehitu egin da, Bizkaikoa eta Gipuzkoakoa murriztu egin den bitartean. EAEko hiru lurraldeetan euskalduntzea eta alfabetatzea altxatu egin da; nabarmena da Gipuzkoan agertzen den abiada. Nafarroan, aldiz, hizkuntza ez da galtzen, baina erakusleek ezer gutxi erakusten dute bere egoera hobea baten alde.

Modu orokorrean mintzatzerakoan, aipatu behar da biztanleriaren %eko 81k alfabetatzea lortu duela (%eko 80,91 emakumeen artean, %eko 82,56 gizonezkoen artean). Hitzunak barnetik zabaltea da garrantzizkoena.

3. urratsa

Hizkuntzaren egoera gizartearen egoeraren aldaketatik datorren moduan, eskolako egoeran ere aldaketa handiak sumatu dira. Jada eskolan umeak ez daude mutil edo neska eskolatan banatuta, denak nahastuta eta batera gela berdinean daude. Eskola bateratu egin da. Eskola bakarrean, gelaren barruan gai bakoitzeko irakasle bat.

Euskal Herrian horrelako eskolak hizkuntza berreskuratzerakoan balio handia azaltzen ari dira, lehentxoago ikusi dugunez.



7. marrazkia. Ikasbidearen 3. urratsa.

Gaurko irakaskuntzatik at geratu dira zenbait gai lehen neskek ikasten zituztenak; egun eraiki nahi den gizarte eredurako komenigarriak direnak generoen arteko lana banatzerakoan. Gutxienez, zenbait gizarte ordezkariak, zein agintariak, diote asmoa etxe barruko eta kanpoko lanak bikotearen artean banatzea eta partekatzea dela.

Gizartean aldaketak ematen ari dira, zenbait ohitura aldatu nahian gabil-tza. Halere, ez dezagun ahanztu, egun, ume guztiak telebistaren kumeak dire-la. Orokorki, telebista gehienetan ematen diren telesailak estatubatuarrak dira. Horietan generoen balioa betikoan mantentzen da, ikusten ditugun kasu gutxi kenduta. Besteak, ordez, japoniarrak, biolentzia ugariekin jantziak datoz-kigu. Lurralde haietako ohiturak, eta giza-psikologia, arrotzak baitzaizkigu. Amerikarretan neskak eta emakumeak jostailu-modura agertzen dira, mutilak eta gizonak bortxatzaile eta erabakitzailearen lana betetzen duten bitarte-an¹⁰. Japoniarretan, ez da beti berdin. Kanporako animazioa egiten dutenean neska betiko neska umila da; barruko merkatura begira lantzen dituzten *manga* marrazkietan neska eta mutilak lana batera egiten dute, hortik zehar sartu den etsaiaren kontra borrokan batera egiten.

Film berriagoetan emakumea borrokalaria, bortxatzaile, erabakitzaile ager-tzen zaigu. Halere, film berri hauetan, gehienetan, emakumearen eskuetan agertzen da soilik xamurtasuna, gorputza liraina, ederra eta «oheragarria» iza-tea. Emakumea gizona bezain *matxoa*, biolentoa, agertzen da. Azken boladan bi eredu agertu dira ikusmoldea aldatu nahian: *Nikita* eta *Lara Croft*. Lehena, bi filmetan eta telesail batetan agertzen da; bigarrena, bideojokoan eta berri-ki filmara eraman dute.

Bukatzeko zenbait galdera sortzen zaizkit, eta hori da marrazkian ager-tzen den galde ikurrak adierazi nahi duena:

- Eskola mota honek desagerraraziko al ditu neska eta mutilei eman zaien heziketa bereiztua?
- Nahikoa indarra al du eskolak gizartean sustraituak dauden ohiturak ezabatzeko, eta haien gainetik ezartzea lortzeko?
- Ikus-entzunezkoak eta multimediei ez ote dute ezabatuko eskolako lana?
- Gurasoak benetan nahi al dute aldaketa ematea?

¹⁰ Gaur eguneko joera hauek *feministen* esanetan Sigmund Freud-ek azaldu zituen teori-atan oinarritzen dira. Nik ez dakit noraino hori horrela ote den. Baina, Freud-ek Edipo-z mintzo zai-gunean, bere gurasoetaz eta arrebatzaz mintzatzea ahaztu egiten da. Batez ere, Edipo aipatzen du; baina haren ama, Jocaste, guztiz baztertu egiten du. *Edipo sindromea*, edonork bere amare-kiko dituen harremanak, hain normalak eta naturalak... Christiane Oliver-entzat berak omen zuen *sindromeren* batek bultzatuta, emakumeak gorrotatzeko. Egile frantziar honek ezagutarazi digu Jocaste, eta amaren psiko-analisia. Christiane Oliver *Les enfants de Jocaste. L'empreinte de la mère*. Denoël/Gonthier, Paris, 1980.